



## II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Bilboko Udala

**Bilboko Gobernu Batzordearen 2024ko abenduaren 18ko Hitzarmenaren laburpena, hurrengo arloan diru-laguntzen deialdia egiteko dena. Garapenerako lankidetza, giza-eskubideak 4.ar. Garapenerako nazioarteko lankidetza, hainbat urtetarako programak Inbertsioa. BDNS (Identif.): 803952.**

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/803952>).

#### **Bat. – Onuradunak**

Egoitza nagusia edo ordezkari finkoa Bilbon (dokumentu-bidez egiaztatuta) daukaten elkarte eta dirua irabazteko asmorik gabeko entitateak izango dira. Euren helburuetan garapenerako nazioarteko lankidetza agertzea beharrezkoa da.

#### **Bi. – Helburua**

Garapenerako nazioarteko lankidetza, hainbat urtetarako programak: helburu nagusia inbertsioa dutenak bultzatzea.

#### **Hiru. – Oinarri arautzaileak**

Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautuko dituen Ordenantza Orokorra (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 138 zk., 2016-07-20koa).

#### **Lau. – Zenbatekoa**

Deialdi honetarako zenbatekoa hurrengoa da: 2025eko aurrekontua: 200.000 euro 2026ko aurrekontua: 200.000 euro 2027ko aurrekontua: 200.000 euro Guztira: 600.000 euro Diruz laguntzeko kontzeptuari aplikatzeko erregimena norgehiagoka da. Gehienezko diru-kopurua programako: 70.000 euro urtero (210.000 gehienez guztira).

#### **Bost. – Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko hurrengo egunean hasi eta 2025eko otsailaren 21ean amaituko da.

#### **Sei. – Beste datu batzuk**

Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, Garapenerako Nazioarteko Lankidetza proiektuei laguntzeko eskabidearen inprimakia (2025. Urtea) deritzon ereduaren arabera.

Bilbon, 2024ko abenduaren 18an. – Giza Eskubideak, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasun Saileko Zinegotzi ordezkaria, Iñigo Zubizarreta Aguirrezabal